



JUNTAS GENERALES DE ALAVA

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

SUPLEMENTO

al Boletín Oficial
del Territorio
Histórico de Álava

GEHIGARRIA

Araba Lurralde
Historikoaren
Aldizkari Ofiziala

2008ko uztailaren 11, ostirala

ZENBAKIA 79 NÚMERO

Viernes, 11 de julio de 2008

ARABAKO BILTZAR NAGUSIAK

4789

14/2008 Foru Araua, uztailaren 3koa, Jarduera Ekonomikoa sustatzeko Neurri Fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga Kontabilitatearen Erreformara egokitu eta bestelako Zerga Neurriak ezartzen dituena.

Arabako Biltzar Nagusiek, 2008ko uztailaren 3an, egindako Osoko Bilkuran ondoko Foru Araua onetsi dute:

14/2008 Foru Araua, uztailaren 3koa, Jarduera Ekonomikoa sustatzeko Neurri Fiskalak onartu, Sozietateen gaineko Zerga Kontabilitatearen Erreformara egokitu eta bestelako Zerga Neurriak ezartzen dituena.

ZIOEN ADIERAZPENA

Azken hiletan ekonomiak okerrera jo du eta ondorioz gaur egun abagune gaitzean gaude. Egoera hau onbideratzeko ekonomia sustatzeko neurriak ezarri behar dira, hain zuzen ere ekonomia osoaren eraginkortasuna hobetzen lagunduko duten neurriak.

Ildo honetatik, foru arau honetako I. tituluan jarduera ekonomikoa bultzatzeko neurriak ezarri dira: Arabako Lurralde Historikoko zerga sistemaren zerga figura batzuk aldatu dira.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren eremuan hainbat neurri ezarri dira arabar zergadunen egoera ekonomikoa hobetzeko asmoarekin; besteak beste, Foru Araua indarrean jarriz gero zerga onura berria aplikatuko da: 400 euroko kenkaria kuota osoan, urtero.

Gainera, baterako zerga ordaintetaren ziozko murrizketa eta familia kenkari eta kenkari pertsonalak gehitu dira eta Zergaren tarifa aldatu da, prezioen igoerak etxeko ekonomian izan duen eragina konpentsatzeko.

Halaber, Elikagaien Ordainteketa Bermatzeko Funtsak ematen dituen kopuruak ez dira Zergaren kargapean egongo. Funts horren helburua adingabeko seme-alabei epaile batek edo epai bidez ezarri eta gero ordaintzen ez diren elikagaietarako kopuruak bermatzea da.

JUNTAS GENERALES DE ÁLAVA

4789

Norma Foral 14/2008, de 3 de julio, de Medidas Fiscales para Incentivar la Actividad Económica, de adaptación del Impuesto sobre Sociedades a la Reforma Contable y otras Medidas Tributarias.

Las Juntas Generales de Álava en su Sesión Plenaria celebrada el día 3 de julio de 2008, han aprobado la siguiente Norma Foral:

Norma Foral 14/2008, de 3 de julio, de Medidas Fiscales para Incentivar la Actividad Económica, de adaptación del Impuesto sobre Sociedades a la Reforma Contable y otras Medidas Tributarias

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En los últimos meses se han producido diversas circunstancias de índole económica que han dado lugar a una coyuntura adversa, que debe ser atajada mediante la adopción de medidas de impulso económico para mejorar la eficiencia de la economía en su conjunto.

En este sentido, en el Título I de la presente Norma Foral se adopta un conjunto de medidas destinadas a incentivar la actividad económica, materializándose en la modificación de diferentes figuras impositivas del sistema tributario del Territorio Histórico de Álava.

En el ámbito del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas, a fin de contribuir a mejorar la situación económica de los contribuyentes alaveses, se introducen diversas medidas, destacando, entre ellas, la incorporación de un nuevo beneficio fiscal consistente en una deducción en la cuota íntegra del Impuesto de 400 euros anuales.

Asimismo, se ha procedido a la elevación de la reducción por tributación conjunta y de las deducciones personales y familiares, así como a la modificación de la tarifa del Impuesto, con el objeto de adecuar todas estas materias al efecto que el alza de los precios ha producido en las economías domésticas.

Igualmente, se declaran no sujetas a dicho Impuesto las cantidades que se reciban del Fondo de Garantía del Pago de Alimentos. Este Fondo tiene como finalidad garantizar a los hijos e hijas menores de edad el pago de alimentos reconocidos e impagados establecidos en convenio aprobado judicialmente o por resolución judicial.

Gainera, alderdi politikoetako afiliazio kuoten eta haien aldeko ekarpenen % 30eko kenkaria aplikatu ahal izango da. Kenkari honen oinarrian ez dira sartuko herritarrek hautatutako edo izendapen libreko kargudun politikoei laneko gastu gisa kentzen dituzten kopuruak.

Zergaren autolikidazioa aurkeztu beharra zehazten duen lanaren etekin gordinen zenbatekoa aldatu da: lehen 9.000 euro zen eta oraindik aurrera 12.000 euro izango da.

Sozietateen gaineko Zergari dagokionez, jabetza intelektualaren edo industrialaren sarrerak murriztu dira. Hain zuzen ere, ez da sartuko zerga oinarrian erakundearen jabetza intelektual edo industrial erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagata lortzen diren sarreraren % 30. Jabetza intelektual edo industrial erakundeak berak garatu badu, aurreko ehunekoa % 60 izango da.

Aipatu beharreko beste aldaketa bat alderdi politikoen zerga araubidean egin da. Izan ere, partzialki salbuetsitako erakundeen zerga araubidean segitzen badute ere, oraindik aurrera haien ondareko ondasun eta eskubideen etekinak eta beraien ustiapen ekonomikoen ondoriozko etekinak ere salbuetsita egongo dira. Nolanahi ere, ustiapen ekonomikoen etekinak salbuesteko, ezinbestekoa izango da alderdi politikoak eskatzea eta Zerga Administrazioari aitortzea.

Halaber, Sozietateen gaineko Zergaren ordainketan beste informazio betebeharrak bat ezarri zaie enpresei: erakundeko administratzaileak edo administrazio kontseiluko kideak jakinarazi beharko dituzte, bai eta bazkideak eta partaidetza daukaten erakundeak ere (kapitalean % 5etik gorako partaidetza daukatenak). Honen osagarri, betebeharrak ez betetzea zergen arloko arau hauste gisa tipifikatu da eta honi dagokion zehapena ezarri da.

Ondare Eskualdaketa eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergari dagokionez, familia ugaritsuek ohiko etxebizitza eskuratzeko dutenean, eragiketarako % 2,5eko zerga tasa jasango du.

Horrez gainera, hainbat gauza aldatu dira hipoteka maileguren inguruko salbuespenekin eta Egintza Juridiko Dokumentatuen modalitateko mailaz mailako kargatik salbuetsi dira alderantzizko hipotekak eratzeko, berritzeko eta kitatzeko egiten diren eskritura publikoak eta ezintasuna duten pertsonen ondare babestuetara egindako ekarpenak dokumentatzen dituzten eskritura publikoak.

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan, udalek kuotaren % 90eko hoberia ezarri ahal izango dute familia ugaritsuen ibilgailuetarako.

Hiri Lurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zergan, babes ofizialeko etxebizitzaren araubidean dauden lurren balioa kalkulatzeko 0,2ko koefizientea aplikatuko zaio salmenta prezioari.

Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean, erantzukizun subsidiarioa gertatzen den kasu berria ezarri da. Hain zuzen ere, zerga zorren eta zehapenen erantzukizun subsidiarioa edukiko dute pertsona juridikoen kontrol efektiboa daukaten pertsona edo erakundeak, edo haiekin batera zuzentzeko borondatea daukatenean, edo zergapekoek modu efektiboan kontrolatzen dituzten pertsona edo erakundeak, edo horiekin batera zuzentzeko borondatea daukatenean.

Beste alde batetik, ondasunen balioak egiaztatzeko baliabide berriak gehitu dira: ondasunei aseguru polizetan emandako balioa; hipotekatutako finak tasatzeko ezarritako balioa, hipotekei buruzko legeriarekin bat etorritik; ondasunen beste eskualdaketa batzuetan aitortutako prezioa edo balioa. Hauek aplikatzeko inguruabar jakin batzuk gertatu behar dira.

Zergak ezartzeko prozedurei beste bat gehitu zaie: Egiaztapen mugatuaren prozedura (Zergak Ikuskatzeko Zerbitzua).

Arau hausteen eta zehapenen araubideari dagokionez, berriaz ezarri da zergen arloko arau haustea dela identifikazio fiskaleko

También se configura una nueva deducción del 30% de las cuotas de afiliación y aportaciones a los partidos políticos, no incluyendo las cantidades que hayan sido objeto de deducción en concepto de gastos de trabajo por los cargos políticos de elección popular y los de libre designación.

Es de destacar la modificación del límite de rendimientos brutos del trabajo que determinan la no obligación de presentar la autoliquidación por este tributo, pasando de 9.000 a 12.000 euros.

Por lo que se refiere al Impuesto sobre Sociedades hay que señalar que se establece una reducción de los ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial. Así, se indica que no se integra en la base imponible el 30% de los ingresos procedentes de la explotación, mediante la cesión a terceros, del derecho de uso o explotación de la propiedad intelectual o industrial de la entidad. Este porcentaje será del 60% si la referida propiedad intelectual o industrial ha sido desarrollada por la propia entidad.

Otra de las modificaciones a destacar tiene que ver con el régimen tributario aplicable a los partidos políticos. En este sentido se les mantiene dentro del régimen de entidades parcialmente exentas, si bien se especifica que también se encuentran exentos los rendimientos procedentes de los bienes y derechos que integran su patrimonio y los rendimientos procedentes de las explotaciones económicas propias, siempre que, en este segundo supuesto, lo solicite el partido político y lo declare la Administración tributaria.

También en el ámbito del Impuesto sobre Sociedades, se implanta una nueva obligación de información para las empresas en la que se harán constar los administradores o miembros del Consejo de Administración de la entidad, así como los socios y las entidades participadas, siempre que, en los dos últimos casos, la participación sea igual o superior al 5 por 100 del capital. Esta obligación se complementa con la tipificación de una nueva infracción tributaria y su sanción correspondiente para el supuesto de su incumplimiento.

En el Impuesto sobre Transmisiones Patrimoniales y Actos Jurídicos Documentados se establece la aplicación del tipo tributario del 2,5 por 100 a la adquisición de la vivienda habitual por las familias numerosas.

Igualmente, se introducen diversas modificaciones en las exenciones relacionadas con los préstamos hipotecarios y se declaran exentas del gravamen gradual de Actos Jurídicos Documentados las escrituras públicas que documenten las operaciones de constitución, novación y cancelación de hipoteca inversa, así como también se declaran exentas las escrituras públicas que documenten las aportaciones a los patrimonios protegidos de las personas con discapacidad.

En el Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica se permite a los Ayuntamiento la posibilidad de establecer una bonificación de hasta el 90% de la cuota a favor de un vehículo cuya titularidad recaiga en las familias numerosas.

En el Impuesto sobre el Incremento del Valor de los Terrenos de Naturaleza Urbana se especifica que el valor de los terrenos correspondientes a inmuebles sujetos al régimen de viviendas de protección pública se calculará aplicando el coeficiente del 0,2 al precio de venta del mismo.

Dentro de la Norma Foral General Tributaria se incorpora un nuevo supuesto de responsabilidad subsidiaria. Así, se establece que tienen esta responsabilidad, respecto de las deudas tributarias y las sanciones, las personas o entidades que tengan el control efectivo de las personas jurídicas o en las que concurra una voluntad rectora común, o las personas o entidades de las que los obligados tributarios tengan el control efectivo o en las que concurra una voluntad rectora común con dichos obligados tributarios.

Por otra parte, se añaden nuevos medios de comprobación de los valores de los bienes, como el valor asignado a los bienes en las pólizas de seguros, el valor asignado para la tasación de las fincas hipotecadas en cumplimiento de lo previsto en la legislación hipotecaria y el precio o valor declarado en otras transmisiones del mismo bien, siempre que se cumplan determinadas circunstancias.

Dentro de los procedimientos de aplicación de los tributos se incorpora el procedimiento de comprobación limitada a la Inspección de los Tributos.

Por lo que se refiere al régimen de infracciones y sanciones se establece expresamente que constituye infracción tributaria comunicar

zenbakia eskatzean datu faltsuak edo faltsutuak adieraztea. Arau hauste honengatik 30.000 euroko zehapena ezarriko da.

Beste alde batetik, foru arau honetako II. titularen xedea Sozietateen gaineko Zergaren araudia merkataritzako legerian kontabilitateaz egin den erreformara egokitzea da.

Sozietateen gaineko Zergaren araudiko aldaketetako asko merkataritzako legeria berriak eragindako egokitzapen terminologikoak baino ez dira; hala ere, zerga araudiaren egokitzapenaren helburua Sozietateen gaineko Zergari buruzko Foru Araua aldatzea da, kontabilitate emaitzaren aldaketek ahalik eraginik txikiena izan dezaten Zergaren oinarrian, aurreko erregulazioarekin erkatuta. Beraz, asmoa Sozietateen gaineko Zerga kontabilitatearen erreforman neutral geratzea da.

I. TITULUA

JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO NEURRI FISKALAK ETA ZERGEN ARLOKO BESTE NEURRI BATZUK

I. KAPITULUA

PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

1. artikulua.- Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 29ko 3/2007 Foru Arauaren aldaketa.

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko ondoko manuak aldatu dira (2008ko urtarilaren 1etik izango dituzte ondorioak):

Bat. 8. artikuluko b) letra aldatu da eta honela geratu da:

“b) Epailearen erabakiz, gurasoengandik mantenurako urteroko kopuru gisa jasotakoak.

Tratamendu bera emango zaie 2007ko abenduaren 7ko 1618/07 Errege Dekretuak, Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtzaren antolaketa eta funtzionamenduari buruzkoak, araututako Elikagaien Ordainketa Bermatzeko Funtzak emandako kopuruei.”

Bi. 9. artikuluari 32. zenbakia gehitu zaio. Hona testua:

“32. Amnistiari buruzko urriaren 15eko 46/1977 Legean ezarritako kasuetarako, Estatuko eta autonomia erkidegoetako legerian kartzetako askatasunik gabeko egonaldiak konpentsatzeko ezarritako kalte-ordainak, eta baita abenduaren 26ko 52/2007 Legeak aurreikusitakoak ere, zeinaren bidez zenbait eskubide onartzen eta zabaltzen diren eta neurri batzuk ezartzen diren guda zibilean eta diktaduran jazarpena edo indarkeria jasan zutenen alde.”

Hiru. 18. artikuluari k) letra gehitu zaio. Hona testua:

“k) Herritarrek hautatutako edo izendapen libreko kargudun politikoek kargua uzteagatik, direnak direla arazoia eta bertan emandako denbora, jasotzen dituzten kopuruak.”

Lau. 19. artikuluari 3. idatz zatia gehitu zaio. Hona testua:

“3. Foru arau honetako 18. artikuluko k) letran aipatzen diren kopuruei artikuluko honetako 1. idatz zatian eta 2. idatz zatiko a) letran ezarritako aplikatuko zaie.”

Bost. 33. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Etekin oso gisa konputatuko da erabiltzeko edo gozatzeko eskubidearen eraketaren errentari, azpierrenerari, lagapen hartzaile edo onuradunak kontzeptu guztiengatik ordaindu beharreko zenbatekoa, higiezinarekin batera lagatako ondasun guztien zenbatekoa barne dela, bidezkoa denean. Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan utziko da.”

Sei. 57. artikuluko 1. idatz zatiko 1. arauko lehenengo paragrafoa eta 4. idatz zatia aldatu dira eta honela geratu dira:

“1. Errentak zerga honi buruzko arauak aplikatuta kalkulatu dira, eta ezin aplikatu izango dira foru arau honetako 26.7, 33.3 eta 42.3. artikuluetan ezarritako integrazio ehunekoak, espezialitate hauekin:”

“4. Errenta egozketaren araubideko erakundeetako kideetatik zerga honen zergadun direnek foru arau honetako 26.7, 33.3 eta 42.3. artikuluetan ezarritako integrazio ehunekoak aplikatu dituzakete beren autolikidazioetan.”

datos falsos o falseados en las solicitudes del número de identificación fiscal. Esta infracción tiene la sanción de 30.000 euros.

Por su parte, el Título II de esta Norma Foral está dedicado a la adaptación de la normativa del Impuesto sobre Sociedades a la reforma de la legislación mercantil en materia contable.

Si bien muchas de las modificaciones en la normativa del Impuesto sobre Sociedades se deben a simples adecuaciones terminológicas del mismo a la nueva legislación mercantil, la adaptación de la normativa fiscal tiene por objeto modificar la Norma Foral del Impuesto sobre Sociedades, con el fin de que las modificaciones en el resultado contable afecten lo menos posible a la cuantía de la base imponible del Impuesto, en comparación con la regulación anterior. Es decir, se pretende que el Impuesto de Sociedades tenga una posición neutral en la reforma contable.

TÍTULO I

MEDIDAS FISCALES PARA INCENTIVAR LA ACTIVIDAD ECONÓMICA Y OTRAS MEDIDAS TRIBUTARIAS

CAPÍTULO I

IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FÍSICAS

Artículo 1.- Modificación de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.

Con efectos de 1 de enero de 2008 se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas:

Uno. La letra b) del artículo 8 queda redactada en los siguientes términos:

“b) Las percibidas de los padres en concepto de anualidades por alimentos en virtud de decisión judicial.

El mismo tratamiento tendrán las cantidades percibidas del Fondo de Garantía del Pago de Alimentos regulado en el Real Decreto 1618/2007, de 7 de diciembre, sobre organización y funcionamiento del Fondo de Garantía del Pago de Alimentos.”

Dos. Se añade un número 32º al artículo 9 con el siguiente contenido:

“32.º Las indemnizaciones previstas en la legislación del Estado o de las Comunidades Autónomas para compensar la privación de libertad en establecimientos penitenciarios como consecuencia de los supuestos contemplados en la Ley 46/1977, de 15 de octubre, de Amnistía, así como, las previstas en la Ley 52/2007, de 26 de diciembre, por la que se reconocen y amplían derechos y se establecen medidas a favor de quienes padecieron persecución o violencia durante la guerra civil y la dictadura.”

Tres. Se añade una nueva letra, la k), al artículo 18, que queda redactada en los siguientes términos:

“k) Las cantidades percibidas por los cargos políticos de elección popular, así como por los cargos de libre designación en virtud de cese en su cargo, cualquiera que fuera la causa y el tiempo de ejercicio del mismo.”

Cuatro. Se añade un nuevo apartado, el 3, al artículo 19, que queda redactado en los siguientes términos:

“3. A las cantidades a las que se refiere la letra k) del artículo 18 de esta Norma Foral les será de aplicación lo establecido en el apartado 1 y en la letra a) del apartado 2 de este artículo.”

Cinco. El apartado 2 del artículo 33 queda redactado en los siguientes términos:

“2. Se computará como rendimiento íntegro el importe que por todos los conceptos deba satisfacer el arrendatario, subarrendatario, cesionario o beneficiario de la constitución del derecho o facultad de uso o disfrute, incluido en su caso, el correspondiente a todos aquellos bienes cedidos con el inmueble y excluido el Impuesto sobre el Valor Añadido.”

Seis. El párrafo primero de la regla 1ª del apartado 1 y el apartado 4 del artículo 57 quedan redactados en los siguientes términos:

“1.ª Las rentas se determinarán con arreglo a las normas de este Impuesto, y no serán aplicables los porcentajes de integración previstos en los artículos 26.7, 33.3 y 42.3 de esta Norma Foral, con las siguientes especialidades:”

“4. Los miembros de la entidad en régimen de atribución de rentas que sean contribuyentes por este Impuesto podrán practicar, en su autoliquidación, los porcentajes de integración previstos en los artículos 26.7, 33.3 y 42.3 de esta Norma Foral.”

Zazpi. 75. artikulua honela geratu da:

“75. artikulua.- Baterako zerga ordainketaren ziozko murrizketa.

1. Foru arau honetako 99. artikuluan xedatutakoaren arabera baterako zerga ordainketa hautatuz gero, urteko autoliquidazioaren zerga oinarritik 3.876 euro ken daitezke.

2. Aurreko idatz zatian aipatutako murrizketa 3.366 eurokoa izango da foru arau honetako 100. artikuluko 2. idatz zatian adierazitako familia unitateen autoliquidazioan.”

Zortzi. 77. artikuluko 1. idatz zatia honela geratu da:

“1. Likidazio oinarri orokorra ondoko eskalan agertzen diren tasekin kargatuko da:

Likidazio oinarri orokorra honaino	Kuota osoa	Likidazio oinarriaren gainerakoa honaino	Aplikatu beharreko tasa
Euroak	Euroak	Euroak	%
0	0	14.280	23,00
14.280	3.284,40	14.280	28,00
28.560	7.282,80	14.280	35,00
42.840	12.280,80	18.360	40,00
61.200	19.624,80	Hortik gora	45,00

Bederatzi. VII. tituluko II. kapituluaren izenburua hauxe izango da:

“II. KAPITULUA

KENKARI OROKORRA, ETA JARDUERA EKONOMIKOA SUSTATZEKO KENKARIA”

Hamar. 80. artikulua honela geratu da:

“80. artikulua.- Kenkari orokorra.

Zergadunek 1.275 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean.

Kenkari hau autoliquidazio guztietan aplikatuko da.”

Hamaika. Artikulu bat gehitu da, 80 bis artikulua. Hona testua:

“80 bis artikulua.- Jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria.

Zergadunek 400 euroko kenkaria aplikatuko dute urtean. Kenkari hau autoliquidazio guztietan aplikatuko da”.

Hamabi. 81. artikuluko 1. eta 2. idatz zatiak honela geratu dira:

“1. Zergadunarekin bizi den ondorengo ahaide bakoitzeko kenkari hau aplikatuko da:

a) 536 euro urtean, lehenengoarengatik.

b) 663 euro urtean, bigarrenarengatik.

c) 1.122 euro urtean, hirugarrenarengatik.

d) 1.326 euro urtean, laugarrenarengatik.

e) 1.734 euro urtean, bosgarrenarengatik eta hurrengo bakoitzarengatik.

2. Zergadunarekin bizi den eta sei urte baino gutxiago dituen ondorengo ahaide bakoitzarengatik, aurreko idatz zatiaren arabera dagokion kenkariaren gainera, urtean 306 euroko kenkari osagarria aplikatuko da.”

Hamahiru. 83. artikuluko 1. idatz zatia honela geratu da:

“1. Egutegiko urte osoan etengabe eta jarraian zergadunarekin bizi den aurreko ahaide bakoitzarengatik 255 euroko kenkaria aplikatu ahal izango da.

Kenkari hau aplikatzeko, aurreko paragrafoan deskribatutako bizikidetzarekin parekatuko da kasu hau: ondorengo ahaideak bere ondarearen kontura diru kopuruak ordaintzen badizkie gizarte zerbitzuen foru sarearen edo parekatuaren barruan ez dauden eta aurreko ahaidea egutegiko urte osoan etengabe bizi den egoitzei.”

Hamalau. 84. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Zergadun ezindu bakoitzeko jarraian azalduko den kenkaria aplikatuko da, ezintasun graduaren eta besteren behararen arabera eta ezarritako arauekin bat etorriz:

Ezintasun gradua eta besteren laguntza behar izatea	Kenkaria (eurotan)
Ezintasuna % 33koa edo handiagoa eta % 65ekoa baino txikiagoa	714
Ezintasuna % 65ekoa edo handiagoa	1.020
Ezintasuna % 75ekoa edo handiagoa, eta 15 - 39 puntu besteren laguntza behar izateagatik	1.224
Ezintasuna % 75ekoa edo handiagoa, eta 40 puntu baino gehiago besteren laguntza behar izateagatik	1.530

Siete. El artículo 75 queda redactado en los siguientes términos:

“Artículo 75.- Reducción por tributación conjunta.

1. En los supuestos en que, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 99 de esta Norma Foral se opte por la tributación conjunta, la base imponible general se reducirá en el importe de 3.876 euros anuales por autoliquidación.

2. La reducción señalada en el apartado anterior será de 3.366 euros en el caso de las unidades familiares señaladas en el apartado 2 del artículo 100 de esta Norma Foral.”

Ocho. El apartado 1 del artículo 77 queda redactado de la siguiente forma:

“1. La base liquidable general será gravada a los tipos que se indican en la siguiente escala:

Base liquidable general hasta	Cuota íntegra	Resto base liquidable hasta	Tipo aplicable
Euros	Euros	Euros	%
0	0	14.280	23,00
14.280	3.284,40	14.280	28,00
28.560	7.282,80	14.280	35,00
42.840	12.280,80	18.360	40,00
61.200	19.624,80	En adelante	45,00

Nueve. El Capítulo II del Título VII tendrá el siguiente título:

“CAPÍTULO II

DEDUCCIÓN GENERAL Y DEDUCCIÓN PARA INCENTIVAR LA ACTIVIDAD ECONÓMICA”

Diez. El artículo 80 queda redactado de la siguiente forma:

“Artículo 80.- Deducción general.

Los contribuyentes aplicarán una deducción de 1.275 euros anuales. Esta deducción se practicará por cada autoliquidación.”

Once. Se añade un artículo, el 80 bis, con la siguiente redacción:

“Artículo 80 bis.- Deducción para incentivar la actividad económica.

Los contribuyentes aplicarán una deducción de 400 euros anuales. Esta deducción se practicará por cada autoliquidación.”

Doce. Los apartados 1 y 2 del artículo 81 quedan redactados de la siguiente forma:

“1. Por cada descendiente que conviva con el contribuyente se practicará la siguiente deducción:

a) 536 euros anuales por el primero.

b) 663 euros anuales por el segundo.

c) 1.122 euros anuales por el tercero.

d) 1.326 euros anuales por el cuarto.

e) 1.734 euros anuales por el quinto y por cada uno de los sucesivos descendientes.

2. Por cada descendiente menor de seis años que conviva con el contribuyente, además de la deducción que corresponda conforme al apartado anterior, se practicará una deducción complementaria de 306 euros anuales.”

Trece. El apartado 1 del artículo 83 queda redactado de la siguiente forma:

“1. Por cada ascendiente que conviva de forma continua y permanente durante todo el año natural con el contribuyente se podrá aplicar una deducción de 255 euros.

A los efectos de la aplicación de esta deducción, se asimilarán a la convivencia descrita en el párrafo anterior los supuestos en que el descendiente satisfaga de su propio patrimonio cantidades a residencias, no incluidas en la red foral o asimilada de servicios sociales, donde el ascendiente viva de forma continua y permanente durante todo el año natural.”

Catorce. El apartado 1 del artículo 84 queda redactado en los siguientes términos:

“1. Por cada contribuyente que sea persona con discapacidad, se aplicará la deducción que, en función del grado de minusvalía y de la necesidad de ayuda de tercera persona conforme a lo que reglamentariamente se determine, se señala a continuación:

Grado de minusvalía y necesidad de ayuda de tercera persona	Deducción (euros)
Igual o superior al 33% e inferior al 65% de minusvalía.	714
Igual o superior al 65% de minusvalía.	1.020
Igual o superior al 75% de minusvalía y obtener entre 15 y 39 puntos de ayuda de tercera persona.	1.224
Igual o superior al 75% de minusvalía y obtener 40 o más puntos de ayuda de tercera persona.	1.530

Aurreko paragrafoan aipatzen diren ezintasun gradua eta puntuak abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren I. eta II. eranskinetan eta autonomia pertsonalaren sustapenari eta menpekotasuna duten pertsonentzako laguntzari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legean menpekotasuna baloratzeko ezarritako baremoa onartu duen apirilaren 20ko 504/2007 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera neurtuko dira.”

Hamabost. 85. artikulua honela geratu da:

“85. artikulua.- Adinarengatiko kenkaria.

65 urtetik gorako zergadun bakoitzarengatik 306 euroko kenkaria aplikatuko da.

Zergadunak 75 urte baino gehiago badauzka, aurreko paragrafoan aipatutako kenkaria 561 eurokoa izango da.”

Hamasei. 93. artikuluar 3. idatz zatia gehitu zaio. Hona testua:

“3. Foru arau honetako 117. artikuluko d) letran aipatzen den eredu informatiboan sartuta dauden zergadunek bakarrik aplika dezakete artikulua honetan jasotako kenkaria.

Dena den, dohaintza egiten duen erakundeak ez badu aurkezten aurreko paragrafoan aipatutako eredu informatiboa, zergadunak artikulua honetan araututako kenkaria aplikatu ahal izango du dohaintzaren ziurtagiria eta ordainketa egiaztatzen duen bankuko zordunketa agiria dituenean.”

Hamazazpi. 95. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“95. artikulua.- Langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik eta alderdi politikoen aldeko kuota eta ekarpenengatik aplika daitekeen kenkaria.

1. Zergadunek langileen sindikatuei ordaindutako kuoten % 30eko kenkaria aplikatu ahal dute.

2. Era berean, alderdi politikoetako afiliazio kuoten eta haien aldeko ekarpenen % 30eko kenkaria ere aplika dezakete.

Ez dira kenkari honen oinarrian sartuko foru arau honetako 23. artikuluko b) letran jasotakoaren arabera gastu gisa kendutako kopuruak.

3. Aurreko idatz zatietan ezarritako kenkariak foru arau honetako 117. artikuluko h) eta i) letretan aipatutako eredu informatiboetan ageri diren zergadunek soilik aplika ditzakete.”

Hemezortzi. 101. artikuluko 2. idatz zatiko c) letra honela geratu da:

“c) Familia unitateko partaide, mutualista, aseguru edo bazkide bakoitzak banaka aplikatu behar ditu foru arau honetako 73. eta 74. artikuluetan eta zortzigarren xedapen gehigarrian zerga oinarri orokorra murrizteko ezarritako gehieneko mugak. Gainera, kontuan hartuko da zergadun bakoitzari zerga oinarrian dagokion proportzioa, foru arau honetako 69. artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.”

Hemeretzi. 104. artikuluko 2. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“2. Hala ere, errentak ondoko iturrietatik soilik lortzen dituzten zergadunek ez dute autolikidaziorik egin beharko:

a) Lanaren etekin gordinak, urteko 12.000 euroko mugarekin banakako zerga ordainketan. Baterako zerga ordainketan, muga hau honelako etekinak lortu dituen zergadun bakoitzari ezarriko zaio.

b) Lanaren etekin gordinak, urtean 12.000 eta 20.000 euro bitartean banakako zerga ordainketan, 3. idatz zatiko kasuetan izan ezean. Baterako zerga ordainketan, muga hau honelako etekinak lortu dituen zergadun bakoitzari ezarriko zaio.

c) Kapitalaren etekin gordinak eta ondare gehikuntzak, salbuesitakoak barne, urteko guztiak bat eginda 1.600 euro baino gehiago izan ez badira.”

Hogei. 117. artikuluko i) letra aldatu da eta honela geratu da:

“i) Alderdi politikoetarako, foru arau honetako 23. artikuluko b) letran eta 95. artikuluko 2. idatz zatian jasotzen denaren arabera erakunde politikoari ordaindutako afiliazio kuotei eta diru kopuruei dagokienez.”

El grado de minusvalía y los puntos a que se refiere el párrafo anterior se medirán conforme a lo establecido en los Anexos I y II del Real Decreto 1971/1999, de 23 de diciembre, así como en el Real Decreto 504/2007, de 20 de abril, por el que se aprueba el baremo de valoración de la situación de dependencia establecido por la Ley 39/2006, de 14 de diciembre, de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia.”

Quince. El artículo 85 queda redactado de la siguiente forma:

“Artículo 85.- Deducción por edad.

Por cada contribuyente de edad superior a 65 años se aplicará una deducción de 306 euros.

En el caso de que el contribuyente tenga una edad superior a 75 años, la deducción a que se refiere el párrafo anterior será de 561 euros.”

Dieciséis. Se añade un apartado 3 al artículo 93, con la siguiente redacción:

“3. Únicamente podrán aplicarse la deducción prevista en el presente artículo aquellos contribuyentes incluidos en el modelo informativo a que se refiere la letra d) del artículo 117 de esta Norma Foral.

No obstante, cuando la entidad donataria no presente el modelo informativo citado en el párrafo anterior, el contribuyente podrá aplicar la deducción regulada en el presente artículo cuando aporte el correspondiente certificado acreditativo del donativo, así como cargo bancario que acredite el pago.”

Diecisiete. Se modifica el artículo 95 que quedará redactado como sigue:

“Artículo 95.- Deducción por cuotas satisfechas a los sindicatos de trabajadores y por cuotas y aportaciones a partidos políticos.

1. Los contribuyentes podrán aplicar una deducción del 30 por 100 de las cuotas satisfechas a sindicatos de trabajadores.

2. Asimismo, los contribuyentes podrán aplicar una deducción del 30 por 100 de las cuotas de afiliación y aportaciones a partidos políticos.

No formarán parte de la base de esta deducción las cantidades deducidas como gasto en los términos previstos en la letra b) del artículo 23 de esta Norma Foral.

3. Únicamente podrán aplicarse las deducciones previstas en los apartados anteriores aquellos contribuyentes incluidos en los modelos informativos a que se refieren las letras h) e i) del artículo 117 de esta Norma Foral.”

Dieciocho. La letra c) del apartado 2 del artículo 101 queda redactada en los siguientes términos:

“c) Los límites máximos de reducción de la base imponible general previstos en los artículos 73 y 74, así como en la Disposición Adicional Octava de esta Norma Foral, serán aplicados individualmente por cada partícipe, mutualista, asegurado o socio integrado en la unidad familiar. Asimismo, se tendrá en cuenta la proporción de base imponible de cada contribuyente a los efectos de lo dispuesto en el artículo 69 de esta Norma Foral.”

Diecinueve. El apartado 2 del artículo 104 queda redactado en los siguientes términos:

“2. No obstante, no estarán obligados a autoliquidar los contribuyentes que obtengan rentas procedentes exclusivamente de las siguientes fuentes:

a) Rendimientos brutos del trabajo, con el límite de 12.000 euros anuales en tributación individual. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

b) Rendimientos brutos del trabajo, superiores a 12.000 euros y hasta el límite de 20.000 euros anuales en tributación individual, salvo que se encuentren incluidos en alguno de los supuestos del apartado 3 siguiente. Este límite operará en tributación conjunta respecto de cada uno de los contribuyentes que obtengan este tipo de rendimientos.

c) Rendimientos brutos del capital y ganancias patrimoniales, incluidos en ambos casos los exentos, que no superen conjuntamente los 1.600 euros anuales.”

Veinte. Se modifica la letra i) del artículo 117 que quedará redactada como sigue:

“i) Para los partidos políticos en relación con las cuotas de afiliación y cantidades aportadas a su organización política en los términos a que se refiere la letra b) del artículo 23 y el apartado 2 del artículo 95 de esta Norma Foral.”

Hogeita bat. Hamabigarren xedapen gehigarria honela geratu da:

“Hamabigarrena.- Ondare pertsonaleko ondasunak zahartzaroak eta menpekotasunak dakartzaten diru beharriaz erantzuteko baliatzea.

1. Ez dira errentatzen hartuko 65 urte baino gehiagoko pertsonen edo Autonomia pertsonala sustatzeko eta besteren beharra duten pertsonak zaintzeko Legeko 26. artikuluan aipatzen den menpekotasun larria edo handia daukaten pertsonen ohiko etxebizitza baliatzearen ondorioz jasotzen diren kopuruak, baldin eta zahartzaroak eta menpekotasunak dakartzaten diru beharriaz erantzuteko ondare pertsonaleko ondasunak baliatzeko egintzei buruzko finantza arautegian ezarritakoarekin bat etorriz egiten badira.

2. Alderantziko hipoteka bat eratzearen ondorioz onuradunak aldizka lortzen dituen diru kopuruak bermatutako aurreikuspen plana kontratatzeke erabil daitezke, osorik edo zati bat, foru arau honetako 72. artikuluko 5. idatz zatian ezarri den moduan eta bertan finkatutako baldintzak betez gero. Alderantziko hipotekak 2007ko abenduaren 7ko 41/07 Legeak arautu ditu, hipoteken merkatuari buruzko martxoaren 25eko 2/1981 Legea eta sistema hipotekario eta finantzarioari buruzko beste arau batzuk aldatu, alderantziko hipotekak eta menpekotasun aseguruak arautu eta zergen arloko arau batzuk ezartzen dituenak. Honen ondorioetarako, foru arau honetako 72. artikuluko 5. idatz zatiko b) letran ezarritako erretiroaren kontingentziarekin parekatuko da hartzaileak bizirik irautea bermatutako aurreikuspen planaren lehen prima ordaindu denetik behin hamar urte igarota.

Bermatutako aurreikuspen plan bateko hornidura matematikoa ezin aldatu izango da gizarte aurreikuspeneko beste tresna batera, eta gizarte aurreikuspeneko beste sistema batzuetako eskubide sendotuak eta hornidura matematikoa ezin eraman izango dira bermatutako aurreikuspen planera.”

II. KAPITULUA SOZIEATEEN GAINEN ZERGA

2. artikulua.- Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauaren aldaketa.

Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 24/1996 Foru Arauko manua hauek aldatu dira (aldaketek 2008ko urtarrilaren 1etik aurrera hasten diren zergaldietan izango dituzte ondorioak):

Bat. 6. artikuluko 1. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“1. Sozietate zibilek (nortasun juridikoa izan zein ez), jaraunspen banatugabeek, ondasun erkidegoek eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorreko 35. artikuluko 3. idatz zatian aipatutako gainerako erakundeek lortuta errentak, bai eta jasandako atxikipen eta konturako sarrerak ere, bazkideei, jaraunslerei, erkideei edo partaideei eratzeko zaizkie, hurrenez hurren, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 29ko 3/2007 Foru Arauko IV. tituluko VI. kapituluko 2. atalean ezarritakoaren arabera.”

Bi. 22 bis artikulua aldatu da eta honela geratu da:

22 bis artikulua.- Jabetza intelektualaren edo industrialaren sarreraren murrizketa.

1. Ez da sartuko zerga oinarrian erakundearen jabetza intelektual edo industrialaren erabiltzeko edo ustiatzeko eskubidea hirugarrenei lagata lortzen diren sarreraren % 30, baldin eta lagapena aldi baterako bada eta ez badakar berekin ondare elementuak besterentzea.

Jabetza intelektual edo industrialaren erakundeak berak garatu badu, aipatu sarreraren % 60 ez da sartuko zerga oinarrian.

Literatura, arte edo zientzia lanak (film zinematografikoak barne) eta merkataritzarako baizik ez diren programa informatikoak erabiltzeko edo ustiatzeko eskubideak, eskubide pertsonal lagagarriak eta irudi eskubideak lagata lortzen diren sarrerak inolaz ere ez dute emango murrizketa aplikatzeko eskubidea.

Veintiuno. La Disposición Adicional Duodécima queda redactada en los siguientes términos:

“Duodécima.- Disposición de bienes que conforman el patrimonio personal para asistir las necesidades económicas de la vejez y de la dependencia.

1. No tendrán la consideración de renta las cantidades percibidas como consecuencia de las disposiciones que se hagan de la vivienda habitual por parte de las personas mayores de 65 años, así como de las personas que se encuentren en situación de dependencia severa o de gran dependencia a que se refiere el artículo 26 de la Ley de promoción de la autonomía personal y atención a las personas en situación de dependencia, siempre que se lleven a cabo de conformidad con la regulación financiera relativa a los actos de disposición de bienes que conforman el patrimonio personal para asistir las necesidades económicas de la vejez y de la dependencia.

2. Las disposiciones periódicas que pueda obtener el beneficiario como consecuencia de la constitución de una hipoteca inversa regulada en la Disposición Adicional Primera de la Ley 41/2007, de 7 de diciembre, por la que se modifica la Ley 2/1981, de 25 de marzo, de Regulación del Mercado Hipotecario y otras normas del sistema hipotecario y financiero, de regulación de las hipotecas inversas y el seguro de dependencia y por la que se establece determinada norma tributaria, podrán destinarse, total o parcialmente, a la contratación de un plan de previsión asegurado, en los términos y condiciones previstos en el apartado 5 del artículo 72 de esta Norma Foral. A estos efectos, se asimilará a la contingencia de jubilación prevista en la letra b) del apartado 5 del artículo 72 de la presente Norma Foral, la situación de supervivencia del tomador una vez transcurridos diez años desde el abono de la primera prima de dicho plan de previsión asegurado.

La provisión matemática del plan de previsión asegurado no podrá ser objeto de movilización a otro instrumento de previsión social, ni podrán movilizarse a aquél los derechos consolidados o las provisiones matemáticas de otros sistemas de previsión social.”

CAPÍTULO II IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

Artículo 2.- Modificación de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades.

Para los períodos impositivos iniciados a partir del 1 de enero de 2008 se modifican los siguientes preceptos de la Norma Foral 24/1996, de 5 de julio, del Impuesto sobre Sociedades:

Uno. Se modifica el apartado 1 del artículo 6 quedando redactado de la siguiente forma:

“1. Las rentas correspondientes a las sociedades civiles, tengan o no personalidad jurídica, herencias yacentes, comunidades de bienes y demás entidades a que se refiere el apartado 3 del artículo 35 de la Norma Foral General Tributaria, así como las retenciones e ingresos a cuenta que se hayan soportado, se atribuirán a los socios, herederos, comuneros o partícipes, respectivamente, de acuerdo con lo establecido en la Sección 2.^a del Capítulo VI del Título IV de la Norma Foral 3/2007, de 29 de enero, del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas.”

Dos. Se da nueva redacción al artículo 22 bis, que quedará redactado de la siguiente manera:

Artículo 22 bis.- Reducción de ingresos procedentes de la propiedad intelectual o industrial.

1. No se integrará en la base imponible el 30 por 100 de los ingresos correspondientes a la explotación mediante la cesión a terceros del derecho de uso o explotación de la propiedad intelectual o industrial de la entidad, siempre que tal cesión se realice con carácter temporal y no implique la enajenación de los elementos patrimoniales correspondientes.

El porcentaje de no integración en la base imponible será del 60 por 100 cuando la propiedad intelectual o industrial haya sido desarrollada por la propia entidad.

En ningún caso darán derecho a la reducción los ingresos procedentes de la cesión del derecho de uso o de explotación de obras literarias, artísticas o científicas, incluidas las películas cinematográficas, de derechos personales susceptibles de cesión, como los derechos de imagen, ni de programas informáticos de exclusiva aplicación comercial.

2. Aurreko idatz zatian ezarritakoa aplikatzeko ondoko betekizunak bete behar dira:

a) Lagapen hartzaileak erabilera edo ustiapen eskubideak jarduera ekonomiko batean erabili behar ditu eta horren emaitzak ezin daitezke izan erakunde lagatzaileari gastu kengarriak eragiten dizkieten ondasun emateak ez zerbitzugintzak (azken kasu honetan, erakundea eta lagapen hartzailea lotuta egon behar dira).

b) Lagapen hartzailea ezin da izan zergarik gabeko edo zerga paradisuztat jotako herrialde edo lurralde bateko egoiliarra.

3. Murrizketa hau kontuan eduki behar da kuota osoaren zenbatekoa zehazteko (foru arau honetako 34.1.b) artikulua).

4. Zerga finkapeneko erakundeen kasuan, lagapenaren ondoriozko sarrerak eta gastuak ezin dira ezabatu zerga taldearen zerga oinarritik.”

Hiru. 29. artikuluko 2. idatz zatiko azken paragrafoa aldatu da eta honela geratu da:

“% 21eko karga tasa negoziatzeko onartu eta ordutik aurrera ixten diren ondoko hiru zergaldietan aplikatuko da, baldin eta zergaldi horietan Zergaren sortzapena gertatzen den egunean baloreak Bilboko Balore Burtsan kotizatzen baztertua ez badaude.”

Lau. 41. artikuluko 4. idatz zatiko a) letrako b) letra aldatu da eta honela geratu da:

“b) Ikerketa eta garapen proiektuetan egindako gastuengatik, ondoko hauekin kontratatuta daudenean: unibertsitateak, ikerkuntzako organismo publikoak edo berrikuntza eta teknologia zentroak, Berrikuntza eta teknologia zentroi buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta daudenean, eta orobat, 2002ko urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituenak, araututako Teknologiaren Euskal Sarean sartutako erakundeak.

Bost. 42. artikuluko 3. idatz zatiko a) letra aldatu da eta honela geratu da:

“a) Ondokoei agintzen zaizkien proiektuak: unibertsitateak, ikerkuntzako organismo publikoak edo berrikuntza eta teknologia zentroak, Berrikuntza eta teknologia zentroi buruzko abenduaren 20ko 2609/1996 Errege Dekretuaren arabera horrela aitortu eta erregistratuta daudenean, eta orobat, 2002ko urriaren 1eko 221/2002 Dekretuak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sarearen oinarriak eguneratzen dituenak, araututako Teknologiaren Euskal Sarean sartutako erakundeak.”

Sei. 116. artikuluko 9. idatz zatia aldatu da eta honela geratu da:

“9. Artikulu honetan ezarritako betekizunak betetzen dituen finantza errentamendu baten birtutez aktiboak eskuratzen dituzten subjektu pasiboek bertan araututako zerga araubide berezia ez aplikatzea hauta dezakete. Hala eginez gero, amortizazio kuoten zenbatekoa kendu ahal dute, 11. artikuluan ezarritako arau orokorrekin edo aplikatzen zaien zerga araubide berezian ezarritakoekin bat etorriz.”

Zazpi. 119. artikuluko 1. idatz zatiko b) letra eta 4. idatz zatia aldatu dira eta honela geratu dira:

“b) Hartzailea Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren zergaduna bada, banatutako mozkin errenta orokortzat hartuko da eta, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 94. artikuluan ezarritakoarekin bat etorriz, nazioarteko zergapetze bikoitzaren ziozko kenkaria aplikatu ahal izango zaie atzerrian baloreen edukitzagatik ordaindutako zergei, hain zuzen ere jasotako mozkinak eratzen duten errenta salbuesiei.”

“4. Artikulu honetako 1. idatz zatiko c) letran eta 2. idatz zatiko b) letran xedatutakoa ez da aplikatuko errentaren hartzailea zerga paradisuztat jotako herrialde edo lurralde bateko egoiliarra izanez gero.”

Zortzi. 121. artikulua aldatu da eta honela geratu da:

“2. Aurreko idatz zatian aipatutako salbuespena ez zaie aplikatuko bertan azaldu ez diren ustiapen ekonomikoaren etekinei, ondarearen errentei eta eskualdaketen ondoriozko errentei.

2. Para la aplicación de lo dispuesto en el apartado anterior deberán cumplirse los siguientes requisitos:

a) Que el cesionario utilice los derechos de uso o de explotación en el desarrollo de una actividad económica y que los resultados de esa utilización no se materialicen en la entrega de bienes o prestación de servicios por el cesionario que generen gastos fiscalmente deducibles en la entidad cedente, siempre que, en este último caso, dicha entidad esté vinculada con el cesionario.

b) Que el cesionario no resida en un país o territorio de nula tributación o considerado como paraíso fiscal.

3. Esta reducción deberá tenerse en cuenta a efectos de la determinación del importe de la cuota íntegra a que se refiere el artículo 34.1.b) de esta Norma Foral.

4. Tratándose de entidades que tributen en el régimen de consolidación fiscal, los ingresos y gastos derivados de la cesión no serán objeto de eliminación para determinar la base imponible del grupo fiscal.”

Tres. Se modifica el penúltimo párrafo del apartado 2 del artículo 29 quedando redactado de la siguiente forma:

“La aplicación del tipo de gravamen del 21 por 100 se efectuará durante los tres períodos impositivos consecutivos que se cierren desde la admisión a negociación y siempre y cuando sus valores a la fecha del devengo de este Impuesto de cada uno de dichos períodos impositivos no fueran excluidos de cotización de la Bolsa de Valores de Bilbao.”

Cuatro. Se modifica la letra b) de la letra a) del apartado 4 del artículo 41, que quedará redactada de la siguiente forma:

“b) Los gastos correspondientes a proyectos de investigación y desarrollo contratados con Universidades, Organismos Públicos de Investigación o Centros de Innovación y Tecnología, reconocidos y registrados como tales según el Real Decreto 2609/1996, de 20 de diciembre, por el que se regulan los Centros de Innovación y Tecnología, y con Entidades integradas en la Red Vasca de Tecnología regulada en el Decreto 221/2002, de 1 de octubre, por el que se actualizan las bases de regulación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.”

Cinco. Se modifica la letra a) del apartado 3 del artículo 42 quedando redactada de la siguiente forma:

“a) Proyectos cuya realización se encargue a Universidades, Organismos Públicos de Investigación o Centros de Innovación y Tecnología, reconocidos y registrados como tales según el Real Decreto 2609/1996, de 20 de diciembre, por el que se regulan los Centros de Innovación y Tecnología, y con Entidades integradas en la Red Vasca de Tecnología regulada en el Decreto 221/2002, de 1 de octubre, por el que se actualizan las bases de regulación de la Red Vasca de Ciencia, Tecnología e Innovación.”

Seis. Se modifica el apartado 9 del artículo 116, que queda redactado de la siguiente forma:

“9. Los sujetos pasivos que adquieran activos por medio de un arrendamiento financiero que cumpla los requisitos de este artículo podrán optar por no aplicar el régimen fiscal especial regulado en el mismo, en cuyo caso será deducible un importe equivalente a las cuotas de amortización de acuerdo con las reglas generales del artículo 11 o las previstas en el régimen fiscal especial que les resulte de aplicación.”

Siete. Se modifican la letra b) del apartado 1 y el apartado 4 del artículo 119 quedando redactados de la siguiente forma:

